




Jantokia

Anaitasuna Ikastola



JANTOKIKO ARAUTEGIA

“Arautegi hau 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmaitako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituen aginduan oinarriturik dago”.

1. OINARRIZKO INFORMAZIOA

- HH-n eta LH-n jantokiko zerbitzua ikasturteko lehen egunetik azken egunera arte eskainiko da.
- Jantokiko ohiko ordutegia 12:30etik 14:30era da.
 - ✓ Tarte honetan ikaslea irten behar bada, gurasoek jantokiko arduradunari aurretik abisatu behar diote eta beti errespetatuko da ikaslearen bazkalordua.
 - ✓ Bi urteko ikasleen gurasoek, umeak 13:30ean jasotzeko aukera izango dute, ikasturte hasieran horrela adieraziz gero.
- Jardunaldi trinkoa denean, jantokiko ordutegia 13:00etatik 14:15er da. Egun hauetan, gurasoei jakinaraziko zaie irteerako tokiak (COVID pandemian: bakoitza bere ohiko sarreratik).
- Begiraleak gurasoekin biltzeko eguna **asteartea** da, eguerdiko 14:30, beti ere, aldeztu aurretik abisatuz.
- Informeak hiruhilabeteka bananduko dira eta opor ostean itzuli behar dira. **Informea galtzen bada, ez da berririk egingo.**
- Ikasle batek janariren bat ezin badu jan, medikuaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.
- Ikasleak jantoki orduan medikamenduren bat hartu behar badu, medikuaren ziurtagiria ekarri beharko du (dosiak, orduak...).

2. JANTOKIKO ORDUKO ARAUAK (ikasleak)

Hemen agertzen diren arauak derrigortasunez bete behar dira jantokiaren funtzionamendu on baterako. Beste aldetik, uste dugu jatordua eta eguerdiko jolasaldia hezkuntzarako esparruak direla eta elkarbizitzarako arauak, berdinen artekoak zein nagusienganakoak errespetatu behar direla.

Portaera desegoki baten aurrean, jantokiko arduradunak berehala esku hartuko du, behar diren neurriak bideratuz, ikastetxeko estamentu ezberdinek adostutakoak eta OOG-ak onartutakoak. Portaera desegokia errepikatzen denean, ikastolako zuzendariak idatzi baten bidez, gurasoei jakin araziko zaie izandako portaera desegokia eta erabakitako neurri konpontzaileak.

2.1. ARAUAK

- Jantokian ere ikastetxeko arau orokorrak errespetatzen ditugu.
- 12:30etan jantokiko begiraleen zain egoten gara dagokigun esparruan.

- Jan aurretik eta jan ostean eskuak garbitzen ditugu.
- Dagokigun lekuan esertzen gara modu egokian.
- Ez gara lekutik altxatzen begiraleak esan arte.
- Aste bakoitzean arduradun bat edo bi izendatzen dira edalontziak, tresnak..., jasotzeko eta hondakinak ontzietara botatzeko (Pandemia sasoian ez da egingo).
- Jantokitik ez dugu janaririk ateratzen.
- Zerbait eskatzeko orduan (ogia, ura,...) edo platerekoa bukatzen dugunean, eskua altxatzen dugu.
- Bazkaltzerakoan tresnak modu egokian erabiliko ditugu eta ez dugu janariarekin jolastuko.
- Ez ditugu litxarreriarik ekarriko.
- Onartutako jostailuak besterik ez ditugu ekarriko.
- Ahots bolumena zainduko dugu jantokian (ez dugu oihukatzen, zaratak ez ditugu ateratzen).

3. KUDEAKETA

3.1. ONARPENAK ETA BAJAK

- Epe barruan egindako inskripzioak bakarrik onartuko dira:
 - ✓ 3 urtetik aurrera urriaren 15era arte
 - ✓ 2 urteko ikasleak azaroaren 1era arte. “Egokitzapen Prozesua” bukatu arte ezin izango da zerbitzu hau erabili.
- Bakarrik ohiko jankideak onartuko dira:
 - ✓ HH eta LH-ko jankideak: 4-5 egun
 - ✓ Egun bateko erabiltzaileak lekuaren arabera onartuko dira.
 - ✓ Ohiko erabiltzaile batek baja ematea erabakitzen duenean, erabateko baja izango da. Abisua, aurreko hilabetetan eman beharko du. Kurtso berean jantoki zerbitzua berriz erabili nahiko balu, Jantokiko Batzordeak erabakiko du onarpena kasua aztertu ondoren. Dagokion zati proportzionala ordaindu beharko du.

3.2. ORDAINKETAK ETA ITZULKETAK

- Ordainketak bankuaren bidez egingo dira, horretarako jankideen gurasoek hirugarrenen alta dokumentoa bete eta ekarri beharko dute ikastetxera.
- Kobroak 10 hilabetetan zatituko dira.
- Aste Santu ostean aste beteko epea egongo da ekainean jantokitik ezabatuzko. Inikaz bidaliko da informazioa.
- Itzulitako erreziiboak:

- Lehenengo erreziboa itzultzen denean, familiari, inikaren bitartez, edo telefonoz jakin araziko zaio.
- Bi hilabeteko erreziboak ordaintzen ez badira, familiari abisua eman ondoren jantokian baja izango da ordaindu arte.
- Bi kasu hauetan bakarrik itzuliko da dirua:
 - ✓ Ikastolak antolatutako eskola irteeretan.
 - ✓ Jankidea ez bada astebetetz edo gehiagoz jarraian jantokira joan behar, beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.

Bi kasu horietan itzuli beharreko zenbatekoa ikasleak ordaindu beharreko kuotaren %50a izango da eta prorratioaren bidez aplikatuko da.

- Jantokiko beka duten ikasleen familiei ez zaie dirurik itzuliko, baja emanaz gero.

4. JANTOKIKO BATZORDEA

4.1. BATZORDEKIDEAK

- Anaitasuna Ikastola HLHIko zuzendaria. Batzordeko lehendakaria Anaitasuna Ikastolako HLHIko zuzendaria izango da.
- Ikastetxeko guraso bat.
- Jantokiko arduraduna.

4.2. ZEREGINAK

2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmaitetako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituen aginduaren 16. artikulua 2. puntuan adierazten direnak.

4.3. KONTAKTUA

Edozein zalantza argitzeko, informazioa eskatzeko, erreklamazioak egiteko, hitzordua eskatzeko,... Ondorengo telefono zenbakia edo helbide elektronikoa erabil daiteke

Tel: 688 614 467

Helbide elektronikoa: jantokia@anaitasunaikastola.net